

FUTBOLA

Osasunak taldearen garrantzia erakutsi zuen garbi Stuttgarten

Garaipen historikoa lortu zuten gorritxoek UEFako partiduan

Osasunak historia egin zuen asteazken gauean Stuttgart talde alemaniarra UEFA txapelketan gaingintzean, eta etapa berri bati ekin zion. Historia, ez bakarrik hirugarren kanporaketa jokatzegatik —lehendabiziko aldiz—, baita gorritxoek konplexu asko bertan behera gelditu bait ziren Neckarstadioneko gau zoragarrian.

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Bigarren zatia lehenbiziko minutuan Urbanek baloia jaso zuen areako ertzean, defentsa bat gaingintu, eta pentsatu gabe, ostikada bota zuen Immelen aterantz. Osasunaren hirugarren gola zen, eta orduan amaitu zen partidua, oraindik denbora asko falta bazen ere.

Lau gol behar zituen Stuttgartek, eta hori, ikusitakoa ikusita, gehiegizkoa zen. Alemaniarrek bi gol sartu zituzten gero, baina kanporaketa ez zen inoiz galduta izan gorritxoentzat.

Eta hirugarren gol horrek izan zuen garrantzia azpimarratzekoa da, lehendabiziko zatia amaieran arazo larriak izan bait zituen talde nafarrak. Alemaniarrek gogor bultzatu zuten, eta aukera franko izan zuten Robertoren atea zulatzeke. Atezaina bikain aritu zen larrialdi guztietan, eta bera izan zen garaipenaren partaide nabarmenetakoa.


Roberto ez da maisua izango atezain lanetan, ez da inoiz beste atezain edo mutikoen erreferentzia izango, baina bere estiloan garbi antzeman daitezke gorritxoek ezaugarriak onenak. Ez dauka izugarritzko abildadea, ez da dotorea, trazagaiztokoa baina. Hala ere, atezain gutxi paratu daitezke hogeitazentimetro ateratzen dieten aurrelarien aurrean, eta eroso atera borrokatik. Hori egin zuen Robertok eta Osasuna osoak.

Partiduaren gakoa, alemaniarren entrenatzaileak partidua amaitutakoan aitortu zuenez, bi taldeetako jokalarien mentalizazio desberdina



Martin Gonzalez, lehian.

JOXE



Iruñearren poza zoratzerrainokoa izan zen Neckarstadionean.

✓ **Osasunari errespetu handiagotz begiratu** diote aurrerantzean Europan, Stuttgarteko partidu bikainen ondotik.

izan zen. Gorritxoek beldur zieten aurkakoei, baina hortzak estututa atera ziren zelaira, dena emateko prest. Stuttgartekoek, ordea, sobera fidaturik ekin zioten norgehiagokari, etxean partidu bakar bat galdu ez izanak ematen duen lasaitasunarekin.

Konturatu zirenerako, bi goleko desabantaila zuten markagailuan, eta

oraindik berotu gabe izanda, aurrean zuten taldea izerdi patsetan zebilen, partidua kontrolatuta. Jokatzeko nahi zutenean, armada bailiran, Robertoren atearen ondoan pilatu ziren, baina harresia altuegia izan zitzaizen, torreta aproposak izan arren.

Atsedendian aurpegi desberdina antzeman ahal izan ziren bi taldeetako zaletuen artean. Denetan harridura, batzuk ezin sinestu eta besteak pozaren pozez. Baina gorritxoek kantatzen segitzen zuten, alemaniarrek bigarren zatiko erreazioaren zain zeuden bitartean. Urbanen golak, ordea, batzuen gogoa zapuztu eta besteak zoratzerraino eramantzen zituen. Alemaniarren bi golak soilik estadistikek jasoko dituzte.

Talde osoa

Solaren hutsa nabarmentzen zen partidua hasi aurretik, taldearen erdikaldean antolatzaile lanaren falta somatuko litzatekeelakoan. Osasunak, ordea, talde itxura eman zuen Stuttgarten, inoiz baino gehiago, eta zenbait jokalarik baino, hamaikako osoak egin zuen lana da azpimagarriena. Erasoko jokaldi guztietan bi aurrelari ezezik erdikaldekoek ere hartu zuten parte, eta alemaniarrek bultzatzerakoan, talde osoa ikusi genuen atzean, Roberto eta atea babestu nahian.

Hori izan daiteke asteazkeneko partidutik atera daitekeen ondorio nagusia, apaltasunez lan eginez gero, helburua finkoa bada, gauza handiak egiteko gai dela Osasuna, izenak izen eta jokalariek jokalarik. Beste Sola aurkitzea ona litzatekeela aipatu genuen partidua aurretik, baina ez zen beharrezkoa izan. Hemendik aurrera, eta falta ziren jokalariekin, helburu gorenak bilatu behar dituzte gorritxoek, zeintzu diren ahaztu gabe, Zabalzak ongi eza gutzen bait du bere taldea: «Lasaitzen garenean, edozeinekin galtzeko gai gara». Esan behar ere hortzak estututa irabazten badakitela.



Urbanen jokoa eta golak izan ziren garaipenerako giltza.

JOXE

Roberto: «Orain errespeto handiagoa izango digute»

IRUÑEA

Partidua amaitu eta gero jokalariek egiten zuten adierazpenetan antzeman zenez, poza ezin ezkutatzekoa zen, eta denek azpimarratu zuten talde osoak egindako jokoa. Robertorentzat, Stuttgarten konfinatza izan zen gakoetako bat. «Oso lasai atera dira, eta azkenean ordaindu behar izan dute konfidantza hori».

İñigo Larrainzar baikor azaldu zen partidua hasi aurretik eta bukatu ondoren taldeak erakutsi zuen morala azpimarratu zuen. «Jokalariek itxaropen handiak genituen, hutsune utziko zituztelakoan bait geunden. Hala ere, zorte handia izan genuen golak azkar sartzerakoan».

Urbanek ere zeresan handia izan

zuen taldearen garaipenean. Bi gol ederrak ez dira egunero markatzen UEFako txapelketan eta poloniarrek kanporaketa gaingintzeko aukerak eman zizkion Osasunari. «Taldea bete bete aritu da partidua osoan, eta somatu da hobera egin dugula gure jokoa denboraldia hasi zenetik. Partidu oso ona egin dugu, aukera franko galdu baditugu ere. Hala ere, ongi aprobetxatu ditugu gureak, eta kontraerasoan sortu dugun arriskua izan da partidua gakoia».

Miguel Solak etxetik ikusi behar izan zuen partidua, baina berak ere konfidantza handia zuen taldearen garipenarekin. «Nik banituen itxaropenak, zaila bai baina ezinezkoa ez zelako. Pena handia izan dut han ez egoteagatik, baina, tira, orain beste kanporaketak etorriko dira».

Osasunaren partidua oihartzunak

DONOSTIA

Osasunak Stuttgarten kontra egindako partidu bikainak aipamen ugari merezi izan zituen atzo hemengo zein Alemaniako egunkarietan. Diario de Navarra sei orrialde eskaini zizkion UEFako neurketa horri, «Neckarstadion, nafar festa» titularekin. Navarra Hoy egunkariak ere sei orrialde eskaini zizkion talde gorritxoari. Bertako titularrak, «Panzer-a poloniarra izan zen», Urbanen lana gogoan.

«Historian sartzeko moldeak apurtzen» titulatu zuen Deiak Osasunari eskainitako orrialdean. Eginek ere orri osoa eman zion kanpo-

raketa horri eta «Osasunak Stuttgart indartsu eta historikoa kanporatu zuen» titulatu zuen. Jan Urbani buruzko aipamen berezia ere egin zuen egunkari horrek: «Izar poloniarrek historia egin zuen». «Osasuna ikaragarriak ezustean harrapatu zuen Stuttgart» izan zen Diario Vascon azalduetako titularrak.

Alemaniar egunkariei dagokien, denek gorritxoek kontraerasoak azpimarratu zituzten. «Nafarrek adarra sartu zioten Daum-i» titulatu zuen Express egunkariak. Die Welt-ek bere aldetik, «Kukuak oker jo zuen» titulatu zuen. Bild egunkariarentzat, «Alemaniarrek beranduegi esnatu ziren».



SAN MAMES FUTBOL ZELAIA

Igandean, azaroak 10, 17.00etan
Liga Txapelketa, 1. Maila

ATHLETIC CLUB - R.C.D. ESPAÑOL

TXARTEL SALMENTA

TXARTELDEGIA: SAN MAMES STADIUM-ean
Ostirala, 17.30etik 20.00etara
Larunbata, 10.30etik 13.30era eta 17.30etik 20.00etara
Igandea, 10.30etik 13.00etara eta 15.30etik aurrera

EZAUGARRIA: 10 zk.dun TXARTELERIA



rekin dabil Athletic

Autonomia, 53 Tel. 427 58 20 BILBO Alameda Rekalde, 48 Tfn. 410 12 55